

BAILARAKO ETXEBIZITZARIK GARESTIENAK, ARRASATEN

Arrasate

P R E S S

1998ko
Apirilak 8
403. zenb.

Oasira ihesi

Aste Santuan
lasaitasun bila

GURE ENPRESAK: LKS AHOLKULARIAK • IKUSPEGIA: BIXENTE AZKARATE
KIROLAK: ADRIAN PRIETO • KULTURA: LIBURUAREN ASTEA



Arrasateko OSASUN GIDA

ODONTOLOGIA

- ADUR ODONTOLOGIA INSTITUTU MEDIKUA Iturriotz, 35.....☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17,1 Ezk.....☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....☎79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA Iturriotz, 7 Bis.....☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7, 1º.....☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5.....☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B.....☎77 12 63

DERMATOLOGIA

- CRISTINA GARCIAINDIA. (Udalaitz Mediku-Zentroa) Ferrerías, 56 behea.....☎79 44 22

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1.....☎77 14 72

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1.....☎77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1.....☎79 72 16

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEAA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis.....☎77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37.....☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10.....☎79 48 77

MASAJEAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk.....☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai).....☎77 01 33

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea.....☎79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6.....☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1.....☎79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2.....☎79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4.....(Mobila) ☎989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea.....☎79 20 18

PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea.....☎79 53 63

PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10.....☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10.....☎79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37.....☎79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerías, 56.....☎79 44 22

Erretiroa prestatu

Gizartea zahartzen ari da. Geroz eta gehiago dira lana uzten dutenak adinak eraginda.

50. eta 60. hamarkadez gogoratzen gara, erretiroa 65 urte betetakoan iristen zenean. Erretiro duinaz gozatze-ko urteak oso gutxi izaten zirean orduan. Izan ere, oso gutxi izaten baitziren 70 urte-ak gaintzen zituztenak. Hori guztia garai hartan zegoen hiltze tasak eraginda, jakina.

Gaur egun, ostera, dena aldatu da. Alde batetik, batezbesteko bizi itxaropena 80 urtera igo da. Bestetik, erretiroak aurreratu egiten dira, kasurik gehienetan. Gutxi dira, %9,8, jubilatze-ko proposatzen zaienean, lanean segitzen dutenak.

Zahartzearekin batera, gaixotzeko arriskuak gora egiten du: zenbat eta jubilatuta ugariago, hainbat eta gaixotasun gehiago. Garai hartan ez geni-



Bixente Azkarate

tuen ezagutzen edo ez zeuden Alzheimer, Parkinson, zahartzaroko erotasuna, bakardadea, beheraldia, eta gaur egun agertuz doazen beste batzuk.

Jubilatzeko zorian daudenei, salbuespen gutxi batzuk salbu, ez zaie prestakuntza berezirik ematen. Erastatu beharra dago, berriz, erabakitze-ko zer egin aurrean izango dugun denbora librearekin. Gai honek sekulako garrantzia du.

Bizimodu berri hau inoiz ez litzateke hartu behar ezertarako balioko ez balu bezala, asperdura edo baztertze moduan, baizik eta lan bizitza baten truke jasotzen dugun atseden ordaindu gisa. Erretiroa ontzat jo behar dugu.

Badakigu zahartzearekin batera gure nortasun-aldaketak gertatzen direla, gainbehera fisikoak, honek sortzen duen menpekotasunak eta familian eta lanean gertatzen diren aldaketek eragiten dituzte-

nak. Aldaketa hauek askotan autoestimuaren galtzea eta bakardadea dituzte lagun. Zenbaitetan urritu egiten dira besteekiko harremanak eta inguruko ekitaldietan parte hartzea. Bide honetik helbururik gabeko erretiroa goaz. Lanpetuta ibiltzeak zahartzaroaren hainbat ezaugarri atzeratuko ditu eta buruagitasuna eta oroimena gordeko ditu. Gainera, atsegina den zereginen bat aurkituz gero, baztertu egingo dira gorabehera psikikoak, batez ere kasu askotan erretiroarekin batera doan beheraldi eta depresioa. Badira egin ditzakegun hainbat eta hainbat jarduera, gure inguruan integraturik bizitzen ahalbidetuko digutenak.

Lagunak egin, jubilatuen etxeak ez daitezela taberna hutsak izan, egon daitezela era guztietako jarduerak: kultura, artea, aisia eta irakurketa. Batez ere azken hau. Irakurketa landuz gero, liburuak, aldizkariak edo egunkariak leituz gero, oroimena nekez galduko da.

Ramon y Cajal Medikuntzako Nobel sariak esaten zuen moduan, "ez zaitez aurpegiko zimurrez ardura, garunetako ez baizik".

"Lanpetuta ibiltzeak zahartzaroaren hainbat ezaugarri atzeratuko ditu"

"Gure inguruko jendea ez dago LABera joateko moduan. LABen alde bozkatu dutenak sindikatu horretan sartuko dira. Baina sekzio sindikalak atzetik ditugunok ESKren alde egin dugu".

Juan Ramon Garai

6 domina

Arrasate Kirolak Atletismo taldeak sei domina irabazi zituen joan den asteburuan Eibarren eta Tolosan jokatu ziren atletismo probetan. Aipatzekoa da Alazne Ruiz de Munainek 600 metroetan lortu zuen urrezko domina.

ITURRI ONETIK

Ramon Zallo Arrasaten bizi izan zen

Ramon Zallo Arrasaten izan zen orain astebeite pasatxo, hirugarren esparruari buruzko mahai inguru batean parte hartzen. Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da eta *El Mundo* egunkariko erredakzio kontseilukidea. Sasoi batean LKiko zuzendaritzan ibili zen. Zerrendaburu ere izan zen alderdi horrekin. Kontua da aldi batez Euskadiko Kutxan egin zuela lan. Olandixon lan egin eta Erguin auzoan bizi. Guztira pare bat urte egingo zituen gure artean *Euskadi o la segunda transición* liburua argitaratu berri duen Zallok.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Ixaro Zubillaga, Marian Porcel, Naiara Gorroño. **Publizitatean:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Txos Azumendi. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artoia, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenkoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saria, ASA taldea, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmela Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatuta. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Juan Luis Azkarate.

Arrasateko Udalerri laguntza
 Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza
 Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna 9

- 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías
- Gauez: Camacho, Bergara.

Ostirala 10

- 10ak arte: Español, Iturriotz
- Gauez: Puy, Bergara

Larunbata 11

- 10ak arte: Corcuera, Musakola
- Gauez: Guallar, Bergara

Igandea 12

- 10ak arte: Irizar, Erguin
- Gauez: Guallar, Bergara

Astelehena 13

- 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías
- Gauez: Estella, Bergara

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatoroa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
-------------------	----------

DYA

Antzuola	78 71 57
--------------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko/medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
.	77 12 64
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
----------------------------------	----------

Udaltzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
--------------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Argindarra (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
.	79 78 44
.	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
PESA	902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa

KIUB-OMIC	79 51 55
---------------------	----------

Monterron liburutegia

Monterron	77 01 05
---------------------	----------

Irratia

Arrasate Irratia	79 58 77
----------------------------	----------

AMA BATEN PENAK ETA IRRIAK

Duela hamahiru urte, Xabi "Gautxori", nire semea atxilotu zuten Iparraldean, Saran.

Baiona, Paue eta Parisko espetxeetan izan ondoren, 1988ko urtarrilean estraditatu egin zuten Espainiara. Ordutik hona, Alcalá, Herre-ra eta Tenerifeko kartzelak ezagutu ditu. Azken presondegi honetan bederatzu urte daramatza.

Sakabanaketaren ondorioz, etxetik urrun dago eta guri asko kostatzen zaigu bueltaka ibiltzea. Beti zalantza bera daukagu buruan: nola ote dago? Urte luze hauetan sufrimendua, mehatxuak eta bakardadea dira presoen eta senideen eguneroko bizitza. Presoengan eragin latza izaten du honek guztiak, baita haien familiarakoengan eta lagunengan ere.

Bi adibide mingarri jar-tzeagatik. Bat: nire senarra —bere aita— hil zenean, ez zuten ekarri azken agurra emateko. Bi: orain dela gutxi semea izan du, Asier, eta ez du aukerarik izan ikusteko, Tenerifera joatea ezinezkoa baita.

Beste alde batetik ikusita, harro nago nire semeak bere nortasunari eta ideiei eusten die-lako. Uste dut bere semea handitzen denean harro egongo dela aitak duen jarrearekin.

Bukatu egin nahi dut Jose Antonio Madiaraga, Senide-ak elkarteko ordezkariaren aipamen bat eginez: "Ezin dugu utzi egun bat gehiago ere Euskal Herritik kanpo egon daitezen, bizitzarako eskubi-dea dutelako".

Oharra. Gure seme-ala-bak orain dela hamar urte baino gehiago kanpoan daude. Ea noiz argitaratzen dituzuen haien argazkiak *Arrasate Pressen*, Mayor Orejaren emaztearen antzera.

Maria Murgoitio Isasmendi.

Lankide berria

Aste honetan gure artean izan den beste aldaketa baten berri eman nahi dizuegu. Apirilaren letik aurrera, Agurtzane Gaintzarain dugu gerente berria. Aurrerantzean berak kude-atuko du Arrasate Komunikabideak elkarte.

Badu eskarmenturik lan horretan. Izan ere, bera izan baitzen —egun erdiz garai hartan— Arkoko kudeatzailea urtebete eta erdiz. Ondoren Umezaintzan, Fagorren eta Eroskin ibili da, Arkora itzuli aurretik. Ikerne Altubek eman



dio lekukoa oraingoan. Honek hiru urte egin ditu Arkoko kudeatzaile moduan. Zortetik onena opa diogu bere proiektu berrietan. Ongi etorri berri-ro, Agurtzane. Eskerrik asko eta ongi izan, Ikerne.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
 Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 79 81 82

UGARAN jatetxea
 Garagartza auzoa
 Tel.: 79 76 58
 ARRASATE

M MEMESA
 Industria hornidurak
 Tel. 71 24 25

Gustura zaude zure lanean?

Inkesta batek agertu duenez, jende gehienak ez luke lanez aldatuko



Pablo Bonilla
(26 urte)


Fagor Ederlaneko langilea

Bai, gustura nago. Hala ere, sormenezko lan bat egitea gustatuko litzaidake, makina bati lotuta egon beharrean.



Cris Hernandez
(30 urte)
Dendaria

Oso gustatzen zait egiten dudana. Oraingoz ez nuke lanez aldatuko, hobetzeko ez bada.



Manolo Gende
(47 urte)

Herrilantetako arduraduna

Oso gustura nago nire lanarekin eta ez nuke aldatuko. Ezagutzen dudana egiten dut.



Amalia Barrionuevo
(44 urte)

Etxeko langilea

Ni gustura nago. Hori bai, lan hobea irtenez gero, edo lan errazagoa, hartuko nuke.



Ibon Fernandez
(28 urte)

ONCEko saltzailea

Gustura nabil. Gainera diru kontuetan ezin naiz kexatu, baina irudimena gehiago lantzea gustatuko litzaidake.



Nerea Pildain
(22 urte)

Alecop-eko langilea

Berehala aldatuko nuke lanez, gutxi irabazten dut eta. Gainera, irakaskuntzan lan egitea gustatuko litzaidake.



Fernando Maiza
(35 urte)

Herrilantetako langilea

Ni ez nago konforme. Lan hobea aurkituz gero, aldatuko nuke. Baso zaintzaile edo eskultore moduan lan egitea gustatuko litzaidake.



Yolanda Gordejuela
(33 urte)

Fagorreko langilea

Oso pozik nabil neure lanarekin. Ez nuke aldatuko.

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65

Pavimentos AGR
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 77 11 20 • Faxe: 77 11 20

Ipek
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

Arrasate

LANAK

SAN FRANTZISKON

Biribila egiten ari dira. Aste Santu inguruan bukatuko dute.

AZATZA ETXEETAN


Aste honetan hasiko dira Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua bukatzeko lanak.

KONTZEZIÑO AUZOAN

Kolektorea eta urbanizazio lanak. Luze joko du.

TAKOLON

Biribil berria egiten ari dira. Luze joko du.



Biztanleak: 24.571
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



ASTEAZKENA 8



OSTEGUNA 9



OSTIRALA 10

Oso lainotua. Noiz-behinka zaparrada txikiak. Elurra 1.000 m. inguruan. Haize motelak, Mendebaldekoak.

Lainotua. Tarteka oso lainotua. Aldian behin, zaparradak. Elurra 900 m. inguruan. Hoztu egingo du.

Oso lainotua. Zaparrada txikiak. Harria egin lezake. Elurra 600 m. inguruan. Iparmendebaleko haizea.

Ilargia



Ilargi beta

Apirilaren 11tik 19ra arte ilargi beta izango da.

Mezak

San Frantzisko
 (Frantziskotarren elizan Parrokia berritu arte)
Ostegunean
 18:00 Azken Afaria
Ostiralean
 18:00 Jesusen heriotza
Larunbatean
 22:00 Bazko Gaubeila


Uribarri
Ostegunean
 20:00 Azken Afaria
Ostiralean
 17:00 Jesusen heriotza
Larunbatean
 21:00 Bazko Gaubeila

San Andres
Ostegunean
 18:00 Azken Afaria
Ostiralean
 17:00 Jesusen heriotza
Larunbatean
 22:00 Bazko Gaubeila

Santa Teresa
Ostegunean
 19:00 Azken Afaria
Ostiralean
 17:00 Jesusen heriotza
Larunbatean
 20:00 Bazko Gaubeila

Urkuluko uraren maila

%86,7



Distantziak

Arrasate									
121	Baiona								
690	579	Bartzelona							
57	170	620	Bilbo						
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela					
72	50	529	119	1.088	Donostia				
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz			
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea		
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril	
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris

9 ostirala

■ ZINEA

La tormenta de hielo, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

10 larunbata

■ DOKE TXAPELKETA

Monterron Parkearen ondoko zelaian doke txapelketa jokatuko da, eguerdiko 12:00ak aldera

17 igandea

■ DANTZA

Kroaziako "Kud Marof" taldeak dantza emanaldia eskainiko du Amaia Antzokian, gaueko 22:30etan. Sarrera 500 pta.

■ II. FRONTENIS TXAPELKETA

Udaberriko binakako II. Frontenis Txapelketan parte hartzeko, apirilaren 23a baino lehen eman beharko da izena. Txapelketa Musakolako pilotalekuan izango da. Jokalari bakoi-tzak 1.000 pta ordaindu beharko ditu, Deba Garaiko edozein udal kirol zerbitzuko bazkide baldin bada; besteek 2.000 pta.

■ BONBA TALDEAREN AURKEZPEN AFARIA

Jam aretoan egingo dute Bonba taldekoek aurkezpen afaria. Ehun bat lagun bilduko dira, Lopez Rekarte, Aranzabal, Aldeondo, Sarriegi eta Arenazarekin batera, besteak beste. Afaria apirilaren 20an, 22:00etan.

■ LIBURUAREN EGUNA

"Euskararen ajeen inguruan" izeneko hitzaldia eskainiko du Ibon Sarasola euskaltzainak. Apirilaren 22an, izango da, arratsaldeko 19:00etan, Monte-rongo hitzaldi aretoan.

Apirilaren 24an, eta areto berean, 19:00etan, Henry Jamesen eleberrian oinarritutako "Retrato de una dama" bideoa eskainiko dute. Sarrera dohainik izango da.

■ EKOLOGIA IBILALDIA

Elgeako Zentral Eolikoaren aurkako ibilaldia egingo da apirila-

ren 26an. Irteera 09:00etan, Urkulu, Araotz, Eskoriatzako edo Barrundiako plazetatik izango da. Amuategi tontorrean elkartzeko asmoa dute antolatzaileek, 12:00etan. Ondoren, gaiaren inguruko argibideak eskainiko dituzte Leixargarateko aterpetxera bidean. 13:00etan, saldaren ondoren, trikitilariak, hitzaldiak eta panelak egongo dira. Ibilaldiaren antolatzaileak, Euskal Mendi Federakundea, Besaide, Murruxio, Pol-Pol, Aloñamendi, Eki, Eguzki eta Elgea-Urkila Garbi dira.

■ TAILA IKASTAROA

Arrasateko Tailaginen Elkarteak hasiera mailako taila ikastaroa antolatu du. Izena emateko 79 40 79 (Felix) edo 79 67 64 (Imanol) zenbakietara dei daiteke. Ikastaroa apirilaren 20an hasiko da.

■ BAILARAKO I. ARTE TOPAKETA

Arrasateko Margo Taldeak eta Beart elkarteek Bailarako Lehen Arte Topaketa antolatu dute, apirilaren 6tik 13ra. Eskualdeko 30 artistaren lanak ikusi ahal izango dira Harresi aretoan. Astegunetan 18:00etatik 20:00etara eta larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Berandu izan baino lehen zaindu zaitez!

Zuk nahi baduzu,

zure osasuna zaintzeko gaude

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25

USTEAK USTE

Hasi mugitzen

Urteak daramatzagu euskal arazoa, liskarra, gatazka edo dena delakoa konpondu ezinik. ETAK, euskaldunon izenean, direnak eta ez direnak egiten dihardu, baita basakeriarik gaiztoenak ere. Espainiako gobernua, bestetik, legezkoak eta legez kanpoko bideak erabiltzen ditu bere bideak ezartzeko.

Jende asko pasatu da bateko zuzendaritzan: Juan Jose Etxabe, Peixoto, Txomin..., hemengoak baino ez aipatzearren. Bestekoan ere izan da aldaketarik: Franco, UCD, PSOE eta PP. Urteak joan dira eta zer daukagu esku artean? Konpondu gabeko arazo bat, ehundaka hildako eta kaltetu eta ia 600 euskal preso Espainian zeharreko espetxeetan barreiaturik, etxetik urrun.

Joan den igandeko kale agerraldian parte hartu zutenek, tartean mondragoetar askok, mezu garbia bidali nahi izan zieten politikoei: hasi mugitzen. Euskal presoena konpondu beharreko arazoetan lehen kapitulua baino ez da.

Joxe Aranzabal



Gazte Topagunea 98

Antxoka Elorza*

Aurten Oiartzunen egin behar dugun Gazte Topagunea hirugarrena izango da. Orain lau urte Etxarrin burutu zen gure lehen Gazte Topagunea. Bigarrena, berriz, Zaldibian, duela bi urte hain zuzen ere. Biek garaian garaiko beharrei erantzuteko balio izan zuten. Etxarrin topaguneak Gazte Mugimenduen indarberritzea ekarri zuen; Euskal Herrian inoiz bizi izan den gazte ekimenik indartsuena. Zaldibia, berriz, bi urtean alde askotan piztutako gazte indarraren ispilua izan zen. Han hartu genuen aurrera egiteko erabakia. Etxarrin 15.000 lagun bildu ginen; Zaldibian,

osterara, 20.000 lagunetik gora.

Bietan agerian geratu ziren alde batetik euskal gazteriaren indarra, ilusioa eta konpromezua; Gazte Mugimenduen indarberritzea, sendotzea eta aberastasuna.

Aurtengo topagunea ez da izango ekimen bakartua. Orain arte sortu ditugun dinamikak eta borrokak bezala, aurrera begira piztu behar

“
Topagunea ez da izango ekimen bakartua. Aurrera begira piztu behar ditugun borrokak bultzatuko ditu
”

ditugunak bultzatuko ditu.

Oiartzungo Topaguneak independentzia izango du ardatz nagusi. Dinamika independentista aurrerapauso nabaria izango da. Hango lan ildoak hauek izango dira: kultura, bizi baldintzak, komunikazioa, aisia, sexualitatea, presoak, euskara eta lurraldetasuna. Lan ildo bakoitzak bere gunea izango du: kirol gunea, komunikazio gunea, kafe karpa...

Horregatik guztiagatik, Arrasateko Jarraik Oiartzunera joateko gonbita egiten dizu. Borroka honetan inor ez dagoelako soberan, denok izan behar dugulako independentziaren bultzatzaile.

Beraz, apirilaren 9tik 11ra bitartean, denok Oiartzunera. Apirilaren 12an, berriz, denok Iruñera.

*Jarraiko kidea



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 79 15 99

ARKOk Bizkaiko eta Gipuzkoako udal euskaltegien publizitate kanpaina egingo du

Arrasate Komunikabideak elkarteko publizitate sailak Bizkaiko udal euskaltegien publizitate kanpaina eramango du aurrera.

Arkoren zerbitzuak beste hiru proposamenen artean irten da irabazle. Lan hau erronka berri bat izango da publizitate sailarentzat. Kaitin Allende ARKOk publizista, pozik agertu da lortutakoarekin. "Orain arte aldizkarirako eta telebistarako publizitatea saltzea izan da gure ardura. Gida komertziala ere egiten dugu; urtetik urtera harrera hobea duen produktua. Orain, publizitate agentzia bilakatuz goaz poliki-poliki eta hori, erronka eta erantzukizun handia da guretzat".



ARKOren finantziaketarako bultzada handia da Bizkaiko kanpaina egitea.

LEHENENGO KANPAINA GIPUZKOAN

Gipuzkoako udal euskaltegiek ARKOn proiektua aukeratu zuten iaz euren kanpaina egiteko. Aste honetan, Bizkaiko udal euskaltegiek ere,

ARKOren proposamena aukeratu dute beste hiru proiektu-artearen artean, beraz, Gipuzkoa eta Bizkaiko kanpainak batera eramango dira. "Kanpainaren helburua da udal euskaltegiak ezagutzera ematea.

Gipuzkoan erabilitako komunikazio plan bera erabiliko dugu Bizkaian, beti ere, euskaltegi bakoitzaren eskaintzari egokituta. Jendeak udal euskaltegien logotipoa eta irudia berehala identifikatzea nahi dugu" azaldu du, Nerea Zallo publizistak.

Udal euskaltegien kanpainak hiru zati izango ditu. Ahalegin handiena irailan egingo da, orduantxe izaten baitira matrikulazio kanpainak. Urtarrilean, egutegi eta beste operari batzuekin emango zaio hasiera urteari. Eta uztailean, barnetegi eta oportetako ikas-taro bereziak iragarriko dira.

Publizitate saileko arduradunak pozik agertu dira udal euskaltegiek eurengan jarritako konfiantzarekin.

Ezker sindikalak ESK sindikatuan sartuko da

Ezker Sindikalak ESK sindikatuan sartzea erabaki zuen joan den larunbatean. Partaideen %63,5 ESKren alde bozkatu zuten.

EGOITZA ARRASATEN
Sindikatuaren etxeko

azkenengo solairuan inauguratu dute egoitza Ezker Sindikalak eta Lankideak taldeak. Inaugurazioa joan den ostegunean egin zen. Ezker Sindikalako militanteentzat bereziki, hungigarria izan zen inaugurazioa. CCOOen

30 urte egin eta gero, korronteak etxe sartzeari egin zuelako. Jose Ramon Garai, korronte sindikaleko bozeramailea, oso pozik agertu zen Ezker Sindikalak jaso duen erantzunarekin. "CCOOk irte-rea ez zen erraza izan.

Dena den, ehun lagun baino gehiago ez genuela bilduko esan zuten eta Arrasaten bakarrik gauditu egin dugu kopuru hori".

Orain erronka nagusia ezker sindikalismoaren batasuna bultzatzea izango da.

Lankideak, kooperatibetako taldeak ere bere txokoa izango du egoitza berrian. Alde batetik kooperatibistek izan ditzaketen eskareei erantzuten saiatuko dira. Bestetik, ezker sindikalismoarekin elkarlana bultzatu nahi dute.



PARDO estetika zentrua

ESKAINNTZA BEREZIAK*:

- Solariuma dutzarekin, 10 saio + 1 dohainik = 8.000 PTA
- Gorputzerako tratamenduak (Ostar metodoaren bitartez): **LEHEN 3.700 PTA**
ORAIN 2.700 PTA

*Eskaintza honek apirilaren 30era arte iraungo du.

Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎ 79 52 17 ARRASATE

Uribarri industrialdeko kutsadura neurtuko da hilabetez

Fagor Ederlan Kooperatibaren inguruko airearen kalitatea zein den jakin nahian, makina bat ipini da hantxe, lantegi honek eta inguruko enpresek eragiten dituzten hondakin atmosferikoak neurtzen dituena. Makina joan den martxoaren 18an ipini zuten eta hilabetez egingo ditu neurketak.


Badirudi ingurune honean bizi direnek kolore gorriko hauts-lainoak ikusi dituztela eta arnasten duten aireari buruzko kezak dituztela. Hori dela eta, Fagor Ederlanek, Arrasateko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak, Uribarriko enpresek eguratsera isur-

tzen dituzten hondakinak aztertzeko makina ezartzea erabaki dute.

Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro teknikariek bi egunean behin jasotzen dituzte makinak bildutako datuak. Ondoren, Zerrajeran dagoen beste makinaren datuekin konparatuko dituzte. Ederlanetik Uribarriko auzunera eramango dute makina, airearen kalitatea nolako den jakin ahal izateko.

KUTSADURAREN AURKA LANEAN

“Ederlan lantegia aspaldi ari da sortzen dituen hondakinak gutxitu nahian” adierazi zigun




Makina Ederlanen dago.

Juan Jose Moreno ingurugiro arloko teknikariak. Asmo honekin iazko udaran zikinak

gutxitzen dituen filtro sistema ezarri zuten lantegian. 150 milio pta. inbertitu zituzten hondakinak gutxitzeko sistema horretan eta badirudi erdira jaitsi dituztela botatzen dituzten hondakinak.

Juan Jose Morenok aditzaera eman digunez, “ez dago honelako filtro sistematik inguruko lantegietan; lehen arazoak genituen, sekulako lokatza biltzen genuelako hondakinak biltzeko genuen ur sistemarekin; orain gutxiago zikintzen dugu. Ederlan taldean 30 tona inguru hondakin batzen ditugu urte osoan zehar”.

Kalitateak mugarik ez.




ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE


IBAN GURIDI IRABAZLE

Laugarren aldiz da Iban Guridik Txakur beren Nazioarteko Lasterketan parte hartzen duela. Oraingoan, arrasatearrak bere mailako lehen saria eskuratu du. Lau txakurrekin leratik tiraka, Gorla-Trekutz-Gorla ibilbidearen hamar kilometroak 32 minututan egin zituen igandean. Lasterketan 40 bat lagunek eta 250 txakurrek hartu zuten parte.



BERGARAKO TXORIMALOA

Auskalo zenbat kilo izango dituen Maritxu Perurenak altxatu nahi duen harriak. Gutxi pisatuta ere, lan dexente izango du txorimaloak harria altxatzen. Hori bai, baikorra dela esan behar. Eguneroko lanarekin lortuko ote du? Lortzen ez badu ere, Jardun elkarteak esaldi onenaren saria eman zion txorimaloari, Erramuko ferian antolatzen duen lehiaketan.



II. KANTATA JAIALDIA

San Viator Txiki eta Goikobalu Txiki abesbatzek, Txikitxu dantza taldeak eta Arrasate Musikaleko Gazte Orkestrak musika emanaldia eskaini zuten joan den igandean Amaia antzokian. Ekitaldia proba bat izan zen Kantataren II. edizioan parte hartzeko. Apirilaren 19an egingo da, Anoetako Belodromoan. Arrasateko abeslari txikiak beste 2.000 haurrekin batera egingo dute lan, 7.000 ikusleren aurrean.



**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 79 20 56

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE





Benidormeko hondartzak jendez gainezka egoten dira Aste Santuan. Arrasatear asko hara edo Saloura joaten dira eguzkia eta atsedena hartzera.

Aste Santua, ihes egiteko sasoia

Marian Porcel

Egunerokotasunak burua eta gorputza nekatzen dizkigunean, denok bilatzen dugu geure oasia, atsedena lekua. Egun batzuk bakarrik jai izanda ere, autoa edo bestelako garraiobideren bat hartu eta tartea uzten dugu geure bururen eta eguneroko arazoaren artean. Aste Santua sasoi egokia izaten da bakoitzak duen oasira ihes egiteko. Udako oporrak heldu bitartean, gogoz aprobetxatzeko garaia.

Aste Santuan arrasatear askoren oasia Mediterraneo kostaldean da. Eguzkiak urteko lehen bainuak hartzeko aukera ematen du eta eguzkizaleek kolore marroixka hartzeko parada izaten dute, harrizko hondartza luzeetan etzanda.

Mediterraneoan Salou eta Benidorm dira arrasatearren oasirik preziatuena. Inguru hartako eskaintzekin osatzen dituzte bidaia bulegoek paketerik (horrela deitzen dira

garraioa eta hotela biltzen dituen eskaintzak) merkeenak. Jendeak ere, paraje haientara joateko nahiago izaten ditu bidaia bulegoek antolatzen dituzten paketeak. Penintsulako beste edozein tokitarajoaiteko orduan, ordea, besterik izaten da.

AUTOA ETA ERREPIDEA

Penintsulako zenbait leku bisitatu nahi dituzten arrasatearrek autoa hartu eta hotelaren erreserba egiten dute. Bidaiatzeko era honek, gai-

nera, gero eta jarraitzaile gehiago ditu, hotelek sekulako erraztasunak ematen dituzte eta. Bidaia bulegoek hotelen taloitegia eskaintzen dute. Taloia aldeztu aurretik erosi gero, ostalua har dezakegu nahi dugun tokian, aurrez erreserba egin beharrik barik. Taloitegiak aukera ematen du Espainian, Andorran, Frantzia eta Portugalen sakabanututa dauden ia 1.000 hotelen ostalua hartzeko.

Opor luzeagoak dituztenak, piska bat urrutirago joa-

ten saiatzen dira. Gazte askok Maroko, Londres edo Amsterdam bisitatzen dute. Ikasleek ikasbidaia egiteko aprobetxatzen dute, gehienetan Mallorcara edo Holandara.

BASERRITURISMOAK GORA

Baserriturismoak ere eskaintzen du taloitegiaren aukera, bidaiariak libreago ibil daitezten. Dena den, jende askok erreserba egiten dute alde aurretik. Gero eta jende gehiago joan ohi da egun batzuk baserrian eta izadiarekin harranetan egotera. Hauetako askok Mediterraneo aldeko hondartzetan dagoen buila, zarata eta mugimendua alde batera utzi eta zelaietako eta basoetako isiltasuna eta bakea bilatzen dute. Arrasatearrak Asturiasko baserrietara joaten dira gehienbat. Ordu gutxira daude, ostatu ona eskaintzen dute eta kostaldera edo mendira jotzeko aukera ematen dute. Kantabriako eta Euskal Herriko baserrietan ere, Mon-



Egun bateko bidaiaren ostean, Maroko: jende askoren jomuga

“Arrasatearrak ohiturazko animaliak garela esan daiteke. Jendeak bere oasis aurkitzen duenean, hara itzultzen da Aste Santuoro”

dragoeko jende dexente aurki daiteke.

JOLAS PARKEAK PROZESIOEN ORDEZ

Nondik nora dabilizan, baliteke arrasatearrek ere tokian tokiko prozesioak ikusi eta erlijio turismoa egitea. Dena den, argi dago nahiago dutela azken urte hauetan han eta hemen ireki diren jolas parke handiak bisitatu. Port Aventura bazoaz, seguru aurkituko duzula arrasatear mordotxo. Frantziara jotzen dutenek Futuroscope eta Disneyland bisitatzeko aprobetxatzen dute.

Dena den, boladan jarri diren leku hauek alde batera utzita, esan daiteke arrasatearrek *ohiturazko animaliak* garela. Jendeak bere oasis aurkitzen duenean, hara itzultzen da Aste Santuoro. Erreserbak bi hilabete lehenago egiten dira. Bidaia luzeak eta atzerriko herrialdeak bisitatzeko udako oporretarako uzten dira. ■

Kanpotarrak geurean

Deba Garaiko turismo bulego bakarrak Oñatin eta Bergaran daude. Hara jotzen dute gure bailara bisitatzera etortzen diren turistek. Oñatiko bulegoan katalanak eta madrildarrak izan dira azken urteotan nagusi kanpotarren artean. Oraindik ere, eurak dira Euskal Herriko turismo bezerorik fidelenak. Azken boladan, dena den, andaluziarrak ere gero eta gehiago hasi dira etortzen. Frantsesak, ingelesak eta italiarrak ere, dexente etortzen dira. Baita hegoamerikarrak ere.

Oñatiko bulegoan, noski, Oñatiko monu-



Arrasaten, alde zaharra, baserriak eta kooperatibak bisitatzeko dituzten turistak.

mentuen eta koben berri ematen zaie. Hala ere, inguruko herrietako informazioa ere —Arrasatekoa barne— ematen zaie. Ahal den guztia ikusteko asmoarekin etortzen dira eta herri guztiek eskaintzen dituzten aukerak ezagutu nahi izaten dituzte.

Arrasateri dagokionez, kooperatibak dira ikusmin handien sortzen dutenak. Kooperatiben inguruan zerbait entzun dutela eta, informazioa eskatu eta industrialdea ikustera etortzen dira. Behin Arrasaten, ez dute aukerarik galtzen alde zaharra eta baserri auzoak bisitatzeko.

LKS Aholkulariak: zabalkunde garaiak

LKS Aholkulariak 80 langile ditu, hiru tokitan lan egiten dutenak: Arrasaten, Bilbon (Zamudioko Teknologia Parkean) eta Donostian (Miramongo Teknologia Parkean). Bost urte baino ez dituen enpresa hau lider bihurtu da aholkularitza ematen duten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen artean. Gogor egin behar izan du lan Arthur Andersen, Price Waterhouse eta izen handiko beste enpresa batzuk gainditu ahal izateko.

LKS Aholkulariak orain bost bat urte sortu zen, Lan Kide Aurrezkiko Enpresa Saila eta Fagor Sistemas elkartu ondoren. LKS aholkularitza eskaintzen die enpresei, gestioa, marketinga eta produkzioa hobe dezaten. Hori dela eta, langile gehienak ekonomistak, abokatuak, soziologoak eta ingeniariak dira. Hala ere, enpresetan normala den bezala, gehienak gazteak dira.

Oraindik orain aldaketa handiak egin ditu bere barnean. Alde batetik, zuzendaritza



LKS

Zuzendaritza taldea

- Jose M. Sainz de VicuñaZuzendari orokorra
- Arantza AlzolaGiza baliabideak
- Patxi NabalEstrategia
- Eva LarreaKalitatea eta giza bal.
- Mikel OrobengoaProdukzioa eta logistika
- Jose Luis LafuenteHobekuntza

LKSren sartzea aholkularitzan

Urte	Sartzera %
1993	8,1
1995	13,5
1997	25,7

tza talde berria aukeratu du. Bestetik, gestio eredu berria ezarri du. Beren bezeroen artean hain emaitza onak eman

dituzten kudeaketa sistema erabili nahi dute enpresa barruan ere. Hori lortze alde- ra, hiru esparru berri sortu

dituzte: Estrategia, Kalitatea eta giza baliabideak eta Produkzioa eta logistika.

Gaur egun LKS Espainiako merkatuaren %16 hartzen du, baina 1997-2000 Estrategia Planak ezartzen duen helburua da kontratazio guztiaren herena lortzea. Hori erdiesteko, zabalkunde asmo handiak ditu LKS. Laster bulegoak irekiko ditu Galizian eta Madrilan.

Nazioartean ere ari dira pentsatzen. Bide horretatik, aipatzeko da orain dela gutxi MIT (Massachusetts Institute of Technology) erakundearekin lortutako hitzarmena. Horri esker, LKS kontsultatu ahal izango ditu hango datuak eta baita hango espezialistekin. Hego Ameriketara ere sartzeko asmotan dabilta: Brasilen, Uruguayan eta beste hainbat herriartean ere.

Besteak beste, bezero hauekin ari da lanean LKS gaur egun: Iparlat, Cetenas, Gas Euskadi, Coruña Unibertsitatea, EHU, Euskadiko Kutxa eta Datavault Iberica.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.
Lorazaintzako mantenimendua orohar.
Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tlnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Bailarako etxerik garestienak Arrasatekoak dira

Etxebizitza erosteko orduan, Arrasate da Deba Garaiko herririk garestiena. Ondoren Aretxabaleta dator, eta atzetik Eskoriatza, Bergara eta Oñati.

Zerk egiten du Arrasate garesti etxea erosteko orduan? Arrasateko etxegintza agentzien ustez, hiru faktorek:

kooperatiben inguruan batik bat dagoen goraldi ekonomikoa, lur eskasia eta diru beltzaren agerpena. Euroa gainean datorkigula eta, diru beltza dutenak diru hori ateratzen hasi dira eta, bestek beste, etxegintzan ari dira sartzen, etorkizunean diru horri atarramendu ona aterako dio-

telakoan. Jende asko, beraz, prest dago etxebizitzak erosteko, ia-ia edozein preziotan. Joan den ostiralean, erdialdean 107 metro koadroko etxe bat 27 milioi ptatan saldu zen. Metro koadroa 250.000 pta.tan, alegia.

Etxegintzak, gainera, hazkunde txikia izan du Arrasaten azken urte hauetan. Bergaran esate baterako, etxegintzaren hazkundera %12koa izan den bitartean, Arrasaten %3koa baino ez omen da izan. Ezkontzekotan edo elkarrekin bizitzekotan diren gazte askok eta askok, ondorioz, Aretxabaletara, Eskoriatzara eta neurri txikiago batean Bergarara egin dute.

Etxebizitzen alokairua ere Bergaran baino %35 garestiagoa da hemen. Mondragon Unibertsitateak badu zerikusirik horrekin. Askok etxebizitzak erosten dituzte, MUKO ikasleei alokatu eta dirua egiteko asmoarekin. Horrek, noski, goratu egiten ditu etxe alokairuen prezioak.

Euroa

Datorren maiatzean euroak izango ditugu sakeletan?

Ez. Euroaren egutegia hori baino korapilatsuagoa da. Datorren maiatzean euroan zein herri sartuko diren erabakiko da, baina euroa berez ez da jaioko 1999ko urtarrilaren 1era arte. Txanponak eta billeteak, ostera, ez dira benetan hasiko hiru urte beranduago arte, hau da, 2002ko urtarrilaren 1era arte.



Euroaren balioa

168,5 PTA

Erabilitako etxebizitzaren prezioa

	PTA/m ²
• Arrasate Pasealekua-Arimazuri.....	230.000
• Erdialdea	210.000
• Uribe auzoa.....	200.000
• San Andres	190.000
• Musakola.....	180.000
• Makatzena	170.000

Iturria: Deba Garaia agentzia

OPEL

OPEL ASTRA BERRIA



Apirilaren 14tik aurrera, zure esku izango dituzu Takolo Autoak eta Ola kontzesionarioetan

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tel.: 79 05 86 ARRASATE

TAKOLO AUTOAK

Eskubaloi jokalaria

ADRIAN PRIETO

Arrasate Eskubaloi taldeko jokalaria kadetea

— **Noiztik jokatzen duzu eskubaloiari?**

— Orain dela zazpi hilabete hasi nintzen. Entrenatzen hasi eta bi hilabetera fitxa lortu nuen; orduan hasi nintzen jokatzen.

— **Zergatik hautatu zenuen eskubaloiari?**

— Multideporteko ordezkaria den Josebak galdetu zigun eskubaloiari jokatzerik nahi genuen, eta animatu egin nintzen. Entrenatzaileari taldean parte har nezakeen galdetu nion eta baietz esan zidanez, entrenatzen hasi nintzen.

— **Zertan ibili zara eskubaloiari hasi aurretik?**


— Lehen futboleant nabilen, baina aukera gutxi dauka jokatzeke. Federatua izan nahi baduzu, futboleant ezin duzu, jende gehienak futboleant jokatzen nahi izaten du eta. Horregatik pasatu nintzen eskubaloiari.

— **Gustura zaude beraz, eskubaloiarekin?**


— Bai, baina nahiago nuke, eta nire taldekideek ere bai, jende gehiago etorriko balitz gure partidak ikustera. Hogei bat lagun etortzen dira eta gehienak, beste taldea animatzera etortzen dira.

— **Nola animatuko zenuke jendea eskubaloiari partidak ikustera joan dadin?**

— Esango nieke eskubaloiari ez dela dirudien bezain aspergarria. Gainera, guk behar duguna animazioa da; partidetarajoa ten garenean mailak hutsik ikusten ditugu eta aurpegi tristeak gelditzen zaigu, eta hasten gara galdetzen “zergatik jokatzen dugu inork ez bagaitu kusten?”.




SASKIBALOI Nahiak ez dira nahikoak



Arrigorriagako Padura taldearen aurka jokatutako partidari, 93-82 galduta zuten arrasatearrek. Sailkapeneko azken lekuan dago Arrasate Saskibaloi taldea, baina hiru partidak gelditzen dira oraindik liga amaitzeko. Beraz, hurrengo denboraldian ikusteko dago oraindik mailaz jaitsiko ote diren. Datorren larunbatean ordiziarren aurka neurtu behar dituzte indarrak, 18:00etan Iturripen.

ESKUBALOI Amaitu da denboraldia



Ondo jokatuta bazuten ere, 27-19 galduten amaitu zuten denboraldia Arrasate Eskubaloi taldekoek. Portugaleten jokatutako partidari Herreroen mutilek ez zuten gaizki jokatuta, baina azkenean, beharbada nekatuta zeudelako, ezin izan zioten partidaren erritmorik eutsi. Arrasatearrek kopa jokatuta ez dutenez, hurrengo denboraldia gertatzen hasi behar dira.


ATLETISMOA Urrea, zilarra eta brontzea



Gipuzkoako kadete txapelketa jokatuta zuten joan den asteburuan Eibarren eta Tolosan. Eibarren Alazne Ruiz de Munainek urrezko domina lortu zuen 600 m.ko lasterketan. Maitane Arizmendiarretak, berriz, zilarrezko domina irabazi zuen 300 m.koan, Tolosan. Arra-

sate Kirolak Atletismo taldeak sei domina lortu zituen gutxitira asteburuan. Zorionak.

FUTBOLA Derby eskasa



Partida eskasa izan zen futbolzaleentzat larunbateko derbya. Mondrak 1 eta 0 irabazi zuen arren, aukera gutxi izan zituzten bi taldeek. Raul Leibak erabaki zuen norgehiagoka arrasatearren alde, partidako bigarren zatiko 10. minutuan. Dagoeneko sailkapenaren laugarren postua lortu du Mondrak eta datorren astean Zarautzera abiatuta da, hango taldearen aurka jokatuz.

Tuterako Lagunen aurka igandean jokatutako partidari 4 eta 0 egin zuen Mondrako Emakume Taldeak. Aprilaren 18an Sondika taldekoen bisita izango dute Atxabalpen, 18:00etan. Hauxe izango da emakumeen aurtengo denboraldiko azken aurreko partidari. Sondikarrak dagoeneko ipar lurraldeko ligako irabazleak dira.

TXAKUR LERAK Lasterketa ikusgarria

Iban Guridik C mailako (lau txakur) Txakur Leren V. Txapelketa irabazi zuen joan den igandean Gorlan, Bergaran. Lau txakurrekin aritu zen Iban. 33 minutu behar izan zituen Gorlatik Trekutzerainoko joan-etorria egiten. Sailkapen nagusian, Goyo del Real nagusitu zen bosgarren urtez. Beraiekin batera, Iñaki Muñoz oñatiar gazteak ere hartu zuen parte. Honek A mailako (7/8 txakur) lehenengo postua lortu zuen. Emakumetan, Ana Goñi izan zen parte hartzaile bakarra Gorlako irteeran.

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.
Sokoakoak	6	6	0	0	35	13	12
Naranja Mecanica	6	5	1	0	36	21	11
Bar Nuevo	6	3	0	3	36	30	6
Aurrera Bolie	6	2	1	3	27	21	5
Jotakabau	6	1	3	2	15	22	5
Insert Coin	6	2	0	4	25	28	4
Zotz	6	1	1	4	20	29	3
Ke Oxtias!!!	6	1	0	5	15	45	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	6	6	0	0	46	19	12
Pepelus	6	3	2	1	32	24	8
Ac Surkos	6	4	0	2	34	25	8
Koka Juniors	6	3	2	1	41	17	8
Bretayer	6	2	1	3	27	31	5
Lauterbrunnen	6	2	1	3	27	36	5
Jako al Rey	6	1	0	5	15	36	2
RR Tamagotxi	6	0	0	6	15	49	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.
Irati STS	6	4	1	1	39	18	9
Garaje Oscar	6	4	1	1	26	19	9
Fraguel Gol	6	3	1	2	16	12	7
KKJauri	6	2	2	2	22	35	6
Jey Holigans	6	3	0	3	25	21	6
Los Heredia	6	2	2	2	16	17	6
Da Iriztu	6	1	1	4	17	31	3
AT Celaya	6	1	0	5	24	32	2

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.
Aldibi	5	5	0	0	41	14	10
Lorategi Potroak	6	5	0	1	41	30	10
Branka Taberna	6	4	0	2	38	28	8
Leya	6	2	1	3	33	46	5
Totem	6	2	1	3	18	15	5
Bar Estrella	5	2	1	2	19	20	5
DBK	6	1	1	4	21	46	3
Txeyenex	6	0	0	6	12	24	0

Emaitzak

A taldea

Naranja Mecanica 6 - Zotz 3
 Jotakabau 4 - Ke oxtias 3
 Sokoakoak 5 - Aurrera-Bolie 3
 Insert Coin 3 - Bar Nuevo 4

B taldea

Argi ibili 5 - Jako al Rey 2
 RR Tamagotxi 3 - Lauterbrunnen 4
 Koka Junior 4 - Pepelus 4
 AC Surkos 5 - Betrayers 4

D taldea

Fragel Roll 6 - KK Jauris 3
 Irati STS 7 - AT Celaya 2
 DA Iriztu 2 - Garaje Oscar 4
 Los Heredia 2 - Jey Juligans 4

E taldea

Bar Estrella 0 - Totem 0
 Txeyenex 0 - DKB 1
 Branka Taberna 10 - Leya 4
 Aldibi 10 - Lorategi Potroak 5

Hurrengo partidak

Apirilak 25, larunbata

Zaldibar

8:50 Aldibi-DKB
 10:00 Los Heredia-At Celaya
 11:00 Naranja Mecanica-Sokoakoak
 12:00 Jey Holigans-Irati Sts
 13:00 Bar Estrella-Branka Taberna
 14:00 Jako al Rey-Pepelus
 15:00 KKJauri-Garaje Oscar
 16:00 Insert Coin-Ke Oxtias!!!
 17:00 Zotz-Aurrera Bolie
 18:00 Fragel Gol-Da Iriztu
 19:00 Totem-Leya

Apirilak 26, Igandea

Zaldibar

9:50 Ac Surkos-Lauterbrunnen
 11:00 Bretayer-RR Tamagotxi
 12:00 Argi Ibili-Koka Juniors
 13:00 Bar Nuevo-Jotakabau

Uribe auzoa txapelketa

Hurrengo partidak

Apirilak 18, larunbata

Iturripe A

10:00 Itxaropena Ainarexia - Rac. Molotov
 11:00 Pening Lapsus-Munar Txiki
 12:00 Felp. Maldito-El Milagro de Bautista
 13:00 Milan Tokao-Dribling
 14:00 Akta-Txotx
 15:00 Bar Nuevo-Rotor de Bolbogrado
 16:00 Rex 22-Borrock & Roll
 17:00 Kamasutra-Lontxo Taberna
 18:00 DKB-Komando Alpagat
 19:00 Potrosorri-La Ostra Azuk

Iturripe B

14:00 Cartonajes Igamo-Fraguel Gol
 15:00 Blind-Decadencia
 16:00 Babajana Sexy-Elvis Team
 17:00 Bortxitak-Hilarion Jatetxea
 18:00 Piernodoiuna Sathellites-Trotabares
 19:00 Sporting Tronp.-Zigar. Multizarra

Apirilak 19, Igandea

Iturripe A

11:00 Mr Magoo-Balon Rojo
 12:00 Mendizabal P de P-Kalandra X
 13:00 Medio Grano-Xhaass

Iturripe B

11:00 Ac Massive-Alai Gozokiak
 12:00 Astoen Villa-Doble Cero
 13:00 Argi Plastic-Chuleton Rovers

Emaitzak

A taldea

Babajana Sexy 3 - Kom. Alpagat 4
 Bar Nuevo 3 - Elvis Team 2
 Sporting Tronp. 2 - Rotor Bolbo. 3
 Milan Tokao 4 - Zigar. Multizarra 8
 Trotabares 1 - Dribling 10
 Piernodoiuna Sathellites 3 - DKB 7

B taldea

Cartonajes Igamo 1 - Leya TMT 0
 Potrosorri 6 - Faguel Gol 6
 Mr Magoo 0 - La Ostra Azul 9
 Medio Grano 9 Xhaass... 2
 Spoting 0 - Lontxo Taberna 6

D taldea

Akta 4 - Decadencia 2
 Astoen Villa 2 Txotx 3
 Rex 22 3 - Doble Cero 5
 Bortxitak 2 - Borrock & Roll 5
 Pening Lapsus 1 - Hilarion Jatetxea 4
 Blind 3 Munar Txiki 4

E taldea

P3000 4 - Milagro de Bautista 1
 Argi Plastic 6 - Racing Molotov 3
 Felp. Maldito 14 - Chuleton Rovers 0
 Ac Massive 2 - Kalandrax 5



Hainbat ekitaldi liburuaren egunerako

Urtero liburuaren eguna ospatzen da apirilaren 23an. Egun hori berezia da literaturan. Egun horretan, duela hiru mende, 1616. urtean, bi idazle handi hil ziren. Batek erroten aurka burrukatzen zuen Kixote Mantxakoaren istorioa idatzi zuen; besteak ostera, literaturako maitasun istorio erromantiko eta trajikoenetarikoa: Romeo eta Julieta.

Cervantes eta Shakespeare dira bi idazleak. Nazioarteko literaturan ezinbesteko bi mugarri. Horrexegatik apirilaren 23an Liburuaren Eguna ospatzen da mundu osoan. Egun horretan omenaldi berezia eskaintzen zaio literaturari.

Arrasateko Udal Liburutegiak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu Liburuaren Egunaren inguruan, apirilaren 20tik 25era bitartera.

Liburutegiko arduradunen asmoa da aste horretan zehar liburuak eta literatura



orohar herritarerei hurbiltzea.

Asteazkenean eta ostiralean liburuak hartu eta azokara joango dira. Jendeak Liburutegiko zerbitzuari buruzko informazioa jasotzeaz gain, Montterongo bildumaren muestra txiki bat ikusteko aukera izango du.

Asteazkenean, apirilaren 22an, azken hilabete hauetan euskal kulturaren zeresana eman duen idazlea izango dugu: Ibon Sarasola. "Euskara Batua Ajeak" liburuaren inguruan hitz egingo du.

Ostiralean "Retrato de

una dama" filma ikusiko da Montterronen.

Aslehenetik larunbatera bitartean liburutegiak hondatuta edo erabiltzen ez diren liburuak emango ditu doan bazkideen artean.

Dena den, literaturari egin diezaiokegun omenaldirik hoberena irakurtzea da. Aste Santuak egun aproposak izan daitezke horretarako. Liburutegitik bi proposamen egin dizkigute: klasikoak irakurtzea eta Ibon Sarasolaren liburua leitzea, Arrasatera datorrenerako.

EMAKUMEON TXOKOA

IKASTAROAK

- **EMAKUME SAILEKO IKASTAROAK:**
 - Autoestima
 - Autodefentsa
 - Menopausia
 - Grafologia
 - Brikolajea

Informazioa: 79 09 00
Emakume Saila

• ENKOFRATZE IKASTAROA

Langabeei zuzenduta. 600 ordu.

Informazioa:
Udaletxeko Enplegu Saila.
Animatu

• EKINEK ETA FAMILIA ETA GIZARTE HEZIKETARAKO ZENTRUAK

hainbat ikastaro antolatzen dituzte.

Informazioa:
EKIN (77 12 28)
Familia eta Gizarte Zentrua (79 04 59)

ZERBITZUAK

Emakume Sailak emakumezkoen zuzendutako hainbat zerbitzu ditu.

Berri gehiago edo laguntza behar baduzu, zuri laguntzeko gaude.



79 09 00

Emakume Saila

TXOKO TABERNA

Cure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalera lizentziatua, 7
Tel.: 79 20 10

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 79 48 77 • ARRASATE

IRATI TABERNA


Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

"Beren garbitasuna berraragitze askoren ondoren landu duten arimek Gozamen Gorenko Jauregiko eguzki izpi kiribilak erdietsiko dituzte, betetasunaren eta perfektotasunaren bizitza berria"...

...eta, behin baino biziko ez balitz?

Xsara coupé

Nortzuk gara? Nondik gatoz? Nora goaz? Eta batez ere, zerk bereizten du Xsara Coupé Berria gainerako auto guztietatik? Baliteke garrantzitsuena ez izatea Coupé izaeraren gardentasuna, ez eta 167 CVra iristen diren bere motorren naturaz gaindiko indarra ere. Aitzitik, eta behingoz, edertasuna gurtzea eta gidatzea bezalako plazerra sublimatzea izan daitezke perfektotasunerako bidea. Azken batean, agian behin baino ez gara biziko eta.

 **CITROËN**
CHAPIME
LANTEGIAK

Araba etorbidea, z/g
 Tel.: 79 06 57 / 79 45 22 / 7708 67 • Faxa: 77 10 47

betaurrekoak guztion gustukoak

Bi lagunentzako bidaiak zozkatuko dugu.
 Zatoz gurekin Tenerifera!

Zurekin noa

Aukeratu zure betaurrekoak, jaso zure txartela eta har ezazu parte bidaiaren zozketan

opari txartela ziurra

 **uda** 98ko modara etor zaitez

Kalitatea saltzen dugu.

INSTITUTO OPTICO Erdiko kale, 22 20500 ARRASATE 79 71 68	INSTITUTO OPTICO Andra Mari, 8 48200 DURANGO 94 6202986
INSTITUTO OPTICO Hiper Eroski 20500 ARRASATE 79 78 26	INSTITUTO OPTICO Grupo San Ignacio, 3 48200 DURANGO 94 6818492
OPTICA GARAGORRI Iturriotz, 29 20500 ARRASATE 79 16 98	INSTITUTO OPTICO Erdiko kale, 21 20830 MUTRIKU 943 60 31 54

Espace

B E R R I A

Espace

H A N D I A



*Esertzeko,
500 era
baino gehiago.*



RENAULT

MECA LANTEGIAK S.A.

Arrasaten 943 79 59 99 • Bergaran 943 76 40 68